

Hasteko, gure proiektua aurrera ateratzeko, bazkide mordo bat behar ditugu, bestela, gure proiektuak ezin izango du aurrera atera. Gure bazkideak nagusiki denda txikiak izango dira, gehiengoak herrietako lokalak. Denda hauen bezeroak naiz langileak garrantzitsuak dira, ahozko marketina egingo digutelako, hau da, proiektua ezaguna egiten denean herritarrek haien artean gomendatzea espero dugu.

Bestalde, udaletxeetatik laguntza ematea ere espero dugu, hasieran, haien herrietako enpresen arrakasta izateko, zentzuzkoa ikusten dugu hauen laguntza ekonomikoa jasotzea.